

XABIER ZUBIRIREN  
PENTSAMENDUA DELA-TA

Joseba Arregi

Xabier Zubiri donostiar filosofoaren heriotza dela-ta gizartea eta intelektual mundua bere pentsamenduaz arduratzen hasi da. Han-emenka omenaldiak ospatzen ari dira eta bere lanari buruzko azterketak agertzen ere ari dira.

Zubiri ez da inoiz jendaurrera azaltzen ohitutako gizona izan. Alderantziz: ixilean eta nahiko ezkutuan lan egitea aukeratu duena baizik. Horregatik, eta bere pentsamenduaren berezitasunagatik, bere heriotzak egonezina sortu du bere kidekoengan: itxuraz behintzat bere filosofia batetik garairik gabekoa da, ezin koka daiteke errazki gaur eguneko filosofia eskola edo korronteen barruan, muzin egiten dio momentuko pentsakera ohizkoari, eta bestetik Zubiri ez da ibili etengabe eguneroko gertaerari buruz bere “Intelektual” iritza ematen.

Hilabete hauetan egiten zaizkion omenaldi eta goraipamenak, beraz, obligaziozko, eginbeharreko zerbaiten kutsua dute beren baitan, bere pentsamenduaren haunditasuna eta sakontasuna zalantzan jartzen ausurtzen ez garelako edo, baina bestetik berak idatzitakoekin zer egin ez dakigulako, Zubiri kontrabidean jartzen zaigulako.

Beharrezkoa da, ordea, ohizko moldeak hautsi eta Zubiriren lana eskuartean hartzea, aurreiritzirik gabe eta askatasun osoan bere balioa aztertzeko, behar baino lehen ehortzi ez dezagun zenbaitek nahi lukeen bezala, eta ehortzea merezi badu, ahaztea, arrazoiz izan dadin, bere lanaren barruko balioezaren ondorio bezala.

Honetarako, ordea, bere lana aztertu eta arakatu behar da. Aureiritzirik gabe eta benetan argibide dabilenaren jarrera hartuz. Zubiriri egin dakioken goraipamenik ederrena horixe izango baita.

Bide honetatik ibiliz, beharrezkoak dira bere pentsamenduaren aurkezpen sistematikoak, bere pentsamenduaren nondik-norakoa hatzematete, bere punturik nagusienak finkatzeko, bere argudio egiturak behar bezala ezagutzeko.

Beharrezkoak dira, baita ere, bere pentsamenduaren gune garrantzitsuenen banakako azterketak, bere lanetan nabari den aberastasunaz jabetze-

ko, bere pentsamenduaren bereizketa gaitasunaren emaitzak ziurtatzeko eta lantzeko.

Orobat ezinbesteko bihurtuko da bere pentsamenduaren ekarria aztertea Zubirik bereziki landu dituen arloetarako: berak moldatzen duen errealitate irudia, giza adimenaren egituraketa, giza irudia, Jainkoaren ulermena etab.

Eta azkenik Zubiriren filosofia azken mendeetako mendebaleko pentsamenduaren bilakaeran non kokatzen den aztertu behar da, zein funtzio betetzen duen bilakaera honen barruan, nola lotzen den bilakaera honekin, nola kontrajartzen zaion eta zergatik bilakaera honi, eta zer argibide ematen duen bilakaera honetaz.

Argi dago, niretzat behintzat, egitasmo ausartegia litzatekeela eginkizun diren guzi horiek lan labur baten bidez burutu nahi izatea. Urteetako eta askoren lana da hori, eta bere garaiean etorriko da. Zubiri eta bere pentsamenduari buruz idazterakoan garrantzirik haundienekoa deritzat bere filosofiaren eta filosofia honen oinarrian aurkitzen diren galderen giro-ingurua detinitzen saiatzea.

Zubiriren lanetara zuzenean ez baina zeharka iritxi garenontzat, hau da mendebaleko azken gizaldietako filosofiaren kezka eta korapiloetatik, bere filosofian igartzen den lehenengo arazoa da itxuraz Zubiri koratrabidetik dabilella mendebaleko azken gizaldietako filosofiak tratatzen dituen gairik nagusienetan.

Geroago zabalago aztertuko dugun bezala, mendebaleko filosofiaren joera garai modernoan gizonaren eta errealitatearen arteko ordurarteko harremanek buruzgainka jartzeak markaturik dago. Descartes-en zalantza metodikoak eta Kant-ek, bere hitzetan, burututako kopernikar iraultzak adieratzen duten bezala, garai modernoetan ez da pertsona, ezagutzen duen pertsona errealitatearen inguruan biraka dabilena, errealitatea baizik gizonaren eta honen adimenaren inguruan.

Osoko bira honek ematen dio azken mendeetako filosofiari bere norabidea. Gizona, maila guzitan, sujeto izatera iristen da, bere burua erlijioaren, eskubidearen, artearen, ezagueraren oinarri, hasiera eta neurri bezala kontsideratzen.

Zehaztasunak gerorako utziz, sujetibizatzeko prozesu honek errealitate zentzuaren galtze bat dakar berekin, edo gutxienez, errealitatea adimenarekiko eta beronen egitura formalarekiko menpekotasunean jartzea.

Zubiriren filosofia azken mendeetako filosofian nagusitu den giro-inguru honetan kokatzen da, eta bilakaera honen barruan bakarrik uler daiteke. Bere pentsamenduaren barne aria errealitatearen eta giza-adimenaren arteko harremanak osatzen du. Alderdi honetatik beraz, Zubiriren filosofiak badu gaurkotasunik.

Bainan Zubiriren jarrera ez da orainarteko azken mendeetako filosofiaren bilakaeraren jarraipen huts bat. Gai berdinez kezkatutik, arduraturik ageri bezaigu ere, bere arazoa planteatzeko era kontrabidetatik doa. Filosofia modernoan giza-adimenak bereganatu duen lehengotasuna zalantzan

jartzen du Zubirik, eta honela errealitatearen berezko indarra eta pisua azpimarratzen ditu.

Zubiri beraz, bere filosofiarekin pentsamendu modernoaren giroan kokatzen da, bainan pentsamendu modernoaren bilakaera desbideratze bat dela kontsideratuz. Honegatik Zubiriren filosofia osoa batez ere Alemaniako transzendental filosofiaren eztabiadatze bat da, errealitatearen azterketa zehatz bat burutuz, eta giza adimenaren eta errealitatearen arteko harremanak eta lotura zehatz-mehatz argituz.

Filosofia modernoa, Kant-ek aipatzen duen kopernikar iraultzaren ondorioz, giza-adimenaren, giza-ezagueraren azterketatik abiatzen bada, gero errealitatearen definizio baldintzatu batera iristeko, Zubiriren bidea alderantzizkoa da: aurrena errealitatearen definitzea eta ondorioz giza-adimenak errealitate honekin dituen lotura eta harremanen argitzea.

Zubiriren filosofia ez da, beraz, askotan esan ohi den bezala, tomismoaren edo eskolastikaren berritze bat. Bere pentsamendua ez dago filosofia modernoaren bilakaeratik hain desloturik, bilakaera horri xehgasun guziz eman nahi zaion erantzun bat baizik, argudioak barran-bana aztertuz eta kontrako argudioak emanaz.

Eztabaida honetan Zubiri gaiaren beraren mugetan gelditzen da, eta ez du espreski pentsamendu modernoaren bilakaeraren arrazoi historikoez galdegiten, ez bakarrik bereziki arrazoi filosofikoez, baizik eta filosofiaz gaindiko arrazoi kulturalaz.

Zubiriren erantzunaren balioa neurtzeko, ordea, ez da nahikoa bere argudio eta kontra-argudioen barne irmotasuna kontutan hartzea. Beharrezkoa da, honetaz gainera, erantzun honen gaitasuna neurtzea desbideratutako bilakaera jotzen duenaren arrazoi emateko: zergatik eman da bilakaera hori eman den bezala, eta Zubiriren erantzunak nolatan integratzen ditu arrazoi horiek bere egituran.

Esan bezala Zubirik ez du arazo hau zuzenean planteatzen. Bere bestelako azalpenetatik, arakatuz, erakarri beharreko ondorioa litzateke hori. Lan hori egiteko dago oraindik. Zubiri behar bezala baloratu ahal izateko, ordea, nahitaezkoa da lan hau burutzea.

Nire lantxo honen helburua, ordea, mugatuagoa da. Zubiriren pentsamendua azken mendeetako filosofiaren bilakaeran nola kokatzen den azaltzen saiatuko naiz.

Lehentxoago aipatu dudan bezala azken mendeetako filosofiaren bilakaerak, bere aberastasun eta aunitztasun guzian, badu zenbait ardatz nagusi aberastasun guzi hori oinarritzko elemento batzutan biltzea bidezko egiten duena.

Ardatz horietako bat, eta agian nagusia, filosofia modernoan gertatzen den giza sujetoaren nagusitzea da. Descartes-en metodozko zalantzak uzten duen irtenbide bakarra gizakiak bere izana, bere existentzia bere pentsamenduaren bitartez ziurtaturik ikustea da. Descartes-ek metodozko zalantzaren bitartez errealitate osoa jartzen du zalantzan. Gizakiak bizi, sentitzen duenaren, gizakiari oharpenezko zaion guziaren ziurtasuna da duda-

tan jartzen dena. Eta zalantza itsaso zabal honen barruan gizapentsamendua bakarrik ageri da oinarri sendo bezala.

Kontutan hartzekoa da metodozko zalantzaren egituraketan Descartes-ek Jainko gaizto bat jokoan sartzen duela, horrela bere planteamenduak nominalismoaren krisiarekin duen lotura nabarmenduz. Nominalismoarekiko lotura honek, filosofia modernoaren bilakaerak Jainkoaren irudi batetiko, erlijio munduarekiko duen lotura agertzen du.

Era berean gogoan izan beharrekoa da Descartes-en “pentsatzen dut, banaiz beraz”, esaldian agertzen den ziurtasun oinarriak denboraren arazoa ez duela besterik gabe gainditzen, hau da, une bakoitzerako bakarrik balio duela, une horiek elkarrekin lotzeko beste maila bateko segurantzaren beharrean aurkitzen delarik. Descartes-en filosofian segurantza hori Jainkoagandik etorriko da. Gerokoan Jainkoarekiko lotura desagertzen denean, denboraren, eta honekin historiaren eta bere erlatibotasunaren eragina, indar guziz azalduko da mendebaleko filosofia modernoan.

Azkenik ahaztu ezineko elementua da Descartes-en planteamendu berrietan ideia garbi eta berezian garrantzia filosofiaren zeregin eta helburu nagusi bezala. Izan ere, Descartes geometra eta matematikoa izaki, aurreratzean filosofia bere lan moduan natur-zientzien eta zientzia zehatzen lanaren mendeko gertatuko baita. Filosofia garai modernoetan ez da gehiago “*ancilla theologiae*” izango, natur-zientzien eta zientzia zehatzen zerbitzari baizik, edo are gehiago: hauen inbiritan ibiliko dena.

Descartes-en filosofiaren beste zenbait elementu alde batetara utzita — hala nola bere sustantziaren ulermena, bi eratako sustantziak planteatzen dituelarik, eta honek gerokoan Malebranche-rengan eta, batez ere, Spinoza-rengan izango dituen ondorioak— aipaturiko hiru elementu nagusi hauek filosofia modernoaren nondik-norakoaren ardatzak markatzen dituzte.

Ardatz hauen arabera, filosofia modernoan sujetibismoa, razionalismoa, historismoa eta formalismoa gaindituko dira, lau ezaugarri hauek elkarrekin zerikusirik gabeko joeran izan gabe, alderantziz baizik, laurak elkarrekin kultura modernoari oinarrizko zaion pentsamendu egitura osatzen dutelarik.

Azaldu dezagun aurrekoaren esanahia, labur bada ere. Mendebaleko pentsamenduaren sujetibatzea badirudi ez dela gertatzen, hasiera batetan behintzat, kontraesanik gabe. Edo beste era batetara esanda, badirudi zenbait datok sujetibatze prozesu hori ukatzen duela.

Dato horietako bat, eta agian nagusia natural konzeptoak 17. eta 18. gn. mendeetan hartzen duen indarra da. Mende horietan giza bizitzako alderdi guziek, itxuraz, beren “naturaltasuna” aurkitzen dute, giza sujetoak bere izaera historikoagatik izan ditzakeen aldaketak gainditzen eta ezabatzen dituen naturaltasun bat. Honela, 17 eta 18 gn. mendeetan eskubide naturala, adimen naturala, erlijio naturala, jakintza naturalak nagusituko dira mendebaleko kulturari: Garai eta lekune ezberdinetatik gaindi dagoen adimen eta egia bat aitortuko dira, Kristautasuna bezalako erlijio historikoen mugak ukatzen dituen berezko erlijiotasun natural bat postulatu da,

garai eta toki ezberdinetako gizarte ohitura diferenteen gainetik, edo azpitik, oinarrian, dagoen etika eta eskubide egitura natural bat formulatuko da, errebelazio ezberdinetatik eta tradizioen menpekotasunetik askaturiko jakintzazko metodologia eta ezaguera ziur eta natural bat.

Natural kontzepto honek aipaturiko mendeetan hartzen duen indarra bere neurri zehatzean ulertu ahal izateko, ordea, beharrezkoa da beste zenbait bilakaera historiko esplikazio honen arian itsastea.

Batetik natural kontzeptoa ez da bakarrik sortzen. Esan nahi dut: behar bati erantzunaz sortzen da, eta behar honek adierazten duenari lotu rik. Behar hau, berriz Erdi Aroaren amaieraren eta garai modernoan hasieraren artean gauzatzen doazen zenbait aldaketak sortarazten du. Aldaketa horiek badute mami berdin bat: deszentratzea, zentro, gune edo ardatz aldaketa bat alegia. Erreformarekin Erromak erlijio ardatz bakar izatea galtzen du. Europa barruan geografikoki hegoaldeetik erdi eta iparaldera mugitzen da herrien eta nazioen nagusitasuna. Aurkikunde edo deskubrimenduekin Europak munduko ardatz izatea galtzen du. Laburki: ordurarteko europar gizonak bizi zuen munduaren ordena eta orden honen gune euslea hausten hasten da kanporatze, urrutiratze indarren eraginpean.

Bilakaera honek garai hartako gizonentzat dakarren ondorioa zera da: denbora bere aldakortasun guziz, historia bere erlatibotasun guziz sentitzea, mundu barruko orientazio edo norabide galtzea, oinarri ziur eta sendo berri baten beharra, gizonek bere mundua berriro egituratu eta ordenatu ahal izateko.

Giroinguru honetan ulertu behar da natural kontzeptoaren indar hartzea. Natural kontzeptoaren bitartez gizonari galdu berria duen oinarria, ziurtasuna, norabidea ber-eskaintzen zaio. Naturala, berezkoa, izadizkoa den guzia historiaren eragin deuseztailetik kanpo gelditzen da.

Natural kontzepto hau, batetik, indar handiz sortzen bada ere, eta giza bizitzako alderdi guzitara aplikaturik, mendebaleko kultura modernoaren bilakaeran murrizten doa, eta bere zentzu betea nagusiki naturzientzietan gordeko du. Batez ere adimen naturala eta egia naturalaren kontzeptoek bide bat baino gehiagotik beren argitasuna eta besterik gabekotasuna galduko dute.

Honen argibide bezala hiru dato bakarrik aipatuko ditut. Kant-ek bere filosofian besterik gabe suposatzen duen sujeta transzendentala, empiriaz gaindiko sujeta, lekune eta denboraren arauetara loturik ez dagoena, Fichte-ren eskutan berriro historiaren eraginpean erortzen da. Fichtek hone-lako sujetaoren eraikitzeaz galdegiten duenan, eta eraikitze momenturako borondatea, eta honekin askatasuna, jokoan sartzen dituenan.

Ilustrazio garaiko filosofian giza pentsamenduak gizartezko errealitatearekin duen loturaren azterketa hasten da. Pentsamoldeak, filosofia sistimak, kultur mailako planteamenduak ez dira abstrakzioaren zeruan inolako baldintzapenik gabe sortzen. Betetzen duten gizartezko eginkizunagatik gizartearen egituraketa politikoarekin loturik daude. Frantziako Ilustrazioak berak gikartezko eginkizun hori aginte politikoaren legitimazioan, zillegizta-



baldintzen eraginetik. (Ikus, adibidez K. P. Popper-en lanak batetik, eta Th. S. Kuhn-enak bestetik).

Ezaguera razionalaren, adimenezko benetako ezagueraren eredu nagusia fisika izan bada azken mendeetan, aipaturiko bilakaeraren ondorioz logika-matematikoa pasa de azken urteetan adimenezko ezagueraren eredu izatera. (Zehaztasun erabatekoaren adibide den logika-matematikoa gerta daitezkeen arazoak zehaztasunaren aurkako “irekitasunak”, adiera aunitz-tasuna adierazten duten irekitasunak aztertzerik ez dago orain. Ikus honetarako Gödel-en teorema famatua: E. Nagel: El teorema de Gödel).

Azken urrats honek esan nahi duena zera da: garai modernoetako sujetoak oinarri natural guziak galtzen dituela eta segurtasun gune bakar bezala bere pentsamenduaren egitura formalak bakarrik gelditzen zaizkiola.

Formalismoa (hitz honen bidez eduki materialen falta adierazi nahi dut, eduki materialak mami bat izan behar bai dute eta mamia beti da jakina, konkretoa, historikoa, baldintzatua) izango da, da, hobeto esateko, sujeto modernoaren eta bere ezagueraren bereizgarri nagusietakoa. Honegatik 20-gn. mendeko filosofiaren ezaugarri bezala razionalismoa aipatzen denean ezin ahaztu daiteke razionalismo hori formala dela, edukiez ahazten dena (Horkheimer-ek razionalismo funtzionala izendatuko du, helburuez osoki ahazten den razionalismo funtzionala).

Sujetibotasunarekin eta razionaltasunarekin batera beraz formaltasuna agertzen da garai berrietako pentsamenduaren ezaugarri bezala. Garai modernoetako sujeta adimenezkoa da, razionala, baina adimenaren alderdi formalak dira bere adimentasunean nagusitzen direnak, horiek baidirudite, hain zuzen, historiaren erlatibotasunetik libratzen diren bakarrak.

Honek berak agertarazten du, ordea, garai berrietako pentsamenduaren beste ezaugarri nagusi bat: historiotasuna. Descartes-ekin hasi eta Kant-ekin sendotzen den razionalista mugimenduak hemeretzigarren mendearen akaberan eta hogeigarren mendearen hasieran historiotasun filosofiari egingo dio leku.

Garrantzizkoa da aipaturiko lau ezaugarri hauen artean dagoen loturaz jabetzea. Ez baidira, inondik ere, elkarren ondoan, elkarrekin zerikusirik gabe, gure kulturen aurkitzen diren lau ezaugarri, gure egunotako kulturen oinegotura elkarrekiko loturan osatzen dutenak baizik. Sujetoaren aurkikundea historiaren erlatibotasuna bizitzeari igartzeari, sentitzeari loturik dator, eta erlatibotasun historikoak eraginik natural kontzeptoaren ordez gizapentsamenduaren alderdi formala azpimarratzea etorriko da; pentsamenduaren formaltze (lehen aipatutako zentzuan) bilakaera honek edukien, mami jakinen, konkretoen mundua, ezinbestean, historiaren eragin aldakorren menpera bultzatuko du.

Garai modernoetako razionalismoa une berean sujetiboa, formala eta historizista da.

Giroinguru honetan begiratu, aztertu eta baloratu behar da Zubiriren pentsamendua. Giroinguru hori gabe ulertzerik ez dago bere filosofia. Baina hau ez da besterik gabe orainarteko bilakaeraren jarraipen huts bat. Bilakaera honen kontrabidetik doa.

Zubiriren pentsamendua, ordea, ez da bilakaera honen aurretikako filosofia sistemen ezgaraiako errepikapen huts bat ere. Zubirik ez du ahazten, ez du baztertzen bilakaera hori: Descartesengandik gaurdaino filosofiak bere burua oinarritze lanetan osotzen joandako argudio guziak kontutan hartzen ditu. Ez ditu, horen aurrean, begiak ixten.

Laburki deskribatutako giroinguru honetan kokatzen bada ere bere pentsamendua mendebaleko filosofiak azken mendeetan izandako historia-  
ren ondorioak ere gogoan ditu, eta ondorio horien aurrean filosofiaren ber-  
oinarritze batetan ahalegintzen da.

Descartes geroztik gizakiak ordurarte errelitatearekin, izadiarekin eta Jainkoarekin zituen harremanak erabat aldatzen baditu, eta aldaketa hori harremanak etete bidetik badoa, Zubiri harreman horien ber-  
ezarpenerako oinarriak lantzen saiatzen da.

Garai berrietako filosofiaren bilakaeraren ondorioz gizon modernoa bere funtsezko harremanetan desorekaturik aurkitzen da: bere izadierekiko harremana aldrebesturik dago, Jainkoarekiko harremana etenik, eta beste gizakiekiko harremana gutxienez zaildurik. Itxuraz besterik badirudi ere, azken mendeetan errealitate galtze bat eman da kultura modernoan, giza-  
pentsamenduaren formaltzearen ondorioz, eta errealitate galtze hori giza kulturaren oinarrian aurkitzen diren beste bi harreman funtsezkoen haustea-  
rekin loturik doa: beste gizakiekikoa eta erlijio munduarekiko lotura.

Egoera honen aurrean lantzen du Zubirik bere filosofia. Pentsamendu modernoan, aipaturiko bilakaeraren barruan, ohizkoa eta ezinbestekoa bada filosofia egiterakoan aurrena giza ezagueraren oinarriaz, bere ahulezia, bere moduz, bere egituraz, galdegitea, gero ezaguera honen eduki izan dai-  
tekeenera igarotzeko, Zubiriren bidea alderantzizkoa da: aurrena ezagueraren edukiaz egiten du galde, ezaguerari dagokion mamia aztertuko du, gero giza ezaguera zertan datzan aztertzeko.

Epistemologia metafisika jarraigoa atzekoz aurre jarriko du Zubirik: metafisika-epistemologia. Gizonak ezagutzen duenaren azterketak du lehen-  
tasuna. Horregatik izaerari buruzko (Sobre la esencia) Zubiriren lana, gizo-  
nak ezagutzen duenaren zera zertan datzan aztertzen duena, ezagueraren beraren azterketaren ondotxo aurretik etorriko da.

Errealitatea da beraz, kultura modernoan galtzearen dagoen errealitatea, Zubiriren lehen kezka eta ardura. Ardura eta kezka hori gauzatzerakoan, ordea, Zubiri ez da, besterik gabe, Erdi Aroko metafisika sistemetara itzul-  
tzen. Batetik azken mendeetako filosofiaren bilakaerari erantzun behar diola-  
ko eta prozesu honetan gauzatzen joandako argudioak bere pentsamenduan integratu behar dituelako, eta bestetik Zubirik, beste inork ez bezala, natur-  
zientziek bitartekotzen diguten izadi irudia, errealitatearen irudia bere xehe-  
tasunetan ezagutzen duelako. Arrazoi honengatik Zubiriren metafisika ez da Tomas Deunaren metafisika, ezta Aristoteles-en metafisika ere.

Garai berrietako filosofiaren lehentasunak atzekoz aurrera jartzera-  
koan Zubiri, ordea, ez da aitorten huts batean, keñu huts batean gelditzen. Ez dio bakarrik metalisikari epistemologiari baino lehen ekiten. Aukera hori argudio bidez oinarritzen du. Giza ezagueraren azterketa zehatza egitera-

koan, giza ezagueraren funtzionamendua bere xehetasunetan arakatzera-koan errealitatearen berezko indarra, berezko izana, lehentasuna frogatzen du, giza ezagueratik at, aske, berarekiko menpekotasunik gabe den zerbaiz bezala.

Errealitatea gizonak ezagututako errealitate izatera pasatzen denean ez da giza ezagueraren egitura formaletan galtzen eta hauetan txukaturik gelditzen. Errealitateak, giza ezagueraren eduki mailan ere, bere berezkotasuna gordetzen du. Giza ezaguera, beraz, errealitateari loturik dago, errealitateak osatzen duen hesparru egituratu eta zabalean integraturik dago.

Ez da posible lantxo honetan Zubirik duen errealitatearen irudia azterzea, ezta errealitate hori eduki bezala duen ezagueraren egituraketa. Garrantzizkoa da, ordea, ikustea Zubirik burutzen duen sujetoaren eta errealitatearen arteko herremanaren eta loturaren ber-etzartzeak berekin dakarrela gizonaren eta Jainkoaren arteko harremanaren ber-ezarpena, eta baita gizakiak beste gizakiekin dituen harreman eta loturarena. Guzi honek noski, azken batean esan nahi duena da Zubirik giza irudi berri bat lortzen duela bere filosofian, garai modernoetako sujeto razionalista, formalista eta historizista ez bezalako.

Denbora dago Zubiriren alderdi hauek zehazki lantzen eta arakatzeko joateko. Lan hori burutzen doan neurrian erantzun ahal izango da lantxo honen hasieran egindako galdera: ea Zubirik bere pentsamenduaren bitartez, bere filosofiaren bidez zenbaiterano azken mendeetan mendebaleko filosofian gertatu denaren arrazoi ematen duen. Ez bait da nahikoa gertatukoaren ondoriak salatzea eta kontrabide bat proposatzea. Honez gainera, gertatukoari erantzuna emanaz, gertatutakoaren bahoeko explikazio bat eman behar da. Orduan bakarrik ikusi ahal izango baidugu Zubiriren filosofia ez Erdi Aroko edo aintzinateko metafisika sistemen errepikapen bezala, baizik eta gaurko egunari dagokion pentsamendu proiektu egoki bezala.

Lan guzi hori, ordea, eginkizun da, eta nire lantxo honen helburua Zubiriren filosofia kokatzeko koordinada egokiak aipatzea besterik ez da izan, eta honekin batera Zubiri-ren filosofiari, behar bezala baloratu ahal izateko, eskatu behar zaiona adieraztea.